



Eman hegoak euskarari



«Umoreak berebiziko garrantzia du literaturan, bereziki dituen bertute pedagogikoengatik»

Ana G. Lartitegui Ilustratzailea
‘Tentelontzia’ albuma argitaratu du,
Flandeseko Errenazimentuko
hainbat egileen lanak
abiapuntu izanik

OIHANE CALVO UGARTE



Haur-literaturan urte asko daramatzan ilustratzaile beteteranoa da Ana G. Lartitegui (Bilbo, 1961). 1989an bere lehen lana eman zuen argitara, eta, harrezkero, haurrentzako beste hainbat liburu idatzi eta ilustratu ditu. Bere azken obra, ‘La nave de los necios’ (2023, A Fin de Cuentos), gaztelaniaz, katalanez eta galegoz argitaratzeaz gain, euskarara ere itzulia izan da Juan Kruz Igerabideren eskutik: ‘Tentelontzia’.

Zenbait sariren irabazle izan den haurrei zuzendutako liburu honetan tradizio satirikoan eta burleskoan barna bidaiatzera gonbidatzen gaitu Lartitegui. Izan ere, ipuinean El Bosco, Brueghel, Jeronimo Bosch eta Patinir bezalako margolari flandestarren mihi-seak akuarelez berreraikitzen ditu, François Rabelaisen, Sebastian Branten edo Erasmo Rotterdamekoaren lanen espiritu groteskoa gogora ekarriz.

– **Kontaiguz pixka bat ‘Tentelontzia’ obraren argumentuaz. Zer aurkituko dute irakurleek istorio honetan?**

– Bizilagunen arteko burla istorioa dela esango nuke. Jende ergelez inguratuta sentitzen den bizilagun batek besteen sinpletasunaren kontura dibertitzea erabakitzen du. Tomate landare txiki bat pitxer batean landatu eta etiketa bat jartzen dio: ‘Tomateak hamahiru aletara iristean, kontaktzen dituen desagertu egiten da bat-batean’. Bere bizilagunaren ate aurrean jarri, eta hor narrazio kateatua hasten da; 13 tomateren bidaiak (obraren azpitu-tulua), hain zuzen ere.

– **Zerk bultzatu edo inspiratu zintuen ‘Tentelontzia’ lana sortze-ra?**

– Egia esan, ideia Lehen Hezkuntzako haurrekin egindako ilustrazio-tailerretatik berreskuratzea erabaki nuen. Tailer horietan, nik neuk asmatu nuen istorioaren ha-

siera, baita amaiera ere, eta haurrek tomate landarea gainean zaramaten pertsonaia bidaiarien galeria eskaini zidaten. Printzipioz poltsiko-ipuina bat idazteko asmoa nuen, baina argitaletxean aurkezterakoan, album bat egitea aholkatu zidaten.

– **Nola sortu zen tradizio satiriko eta burleskoaren elementuak haurrentzako liburu batekin uzartzeko ideia?**

– Ipuinaren tonuak kaleko istorioen izaera herrikoira garamatzeaz, istorioko pertsonaia Flandeseko Errenazimentuko pintoretako paisaia eta agertokiak islatzeko ideia etorri zitzaidan burura, Patinir, El Bosco edo Brueghel Zaharra bezalako maisuen pintura kostunbrista eta satirikoaren tradizioarekin bat eginez.


– **Nola hautatu zenituen akuarelez berreraikitako pintore flandestarren obra ezberdinak?**

– Albumeko lehen pertsonaia ibai baten ertzean iristen den eszena zirriborratzen, lan piktorikoen eszenatokien bila nenbilela, Patinirren ‘El paso de la laguna Estigia’ lanarekin topo egin nuen, eta liburuan agertoki eta pertsonaia horiek islatzeko ideiak tentatu ninduen. Ondoren, El Boscoren ‘La nave de los locos’ eta ‘El prestidigitador’ pinturak etorri zitzaizkidan burura, giza ergelkeriari buruzko nire ipuina ezin hobeto egokitzen baitzen Errenazimentuko korrante satirikoarekin; pikaeskaren eta groteskoaren zantzu garbiekin. Horrela, literatura eta arte garai honetan sakonago ikertzen hasi nintzen, eta erreferentziak zabaldu egin ziren pixkanaka-pixkanaka.

– **«Igerabide aditu handia da»**

– **Nolakoa izan zen Juan Kruz Igerabideren euskarazko itzulpeneko lankidetzaren prozesua?**

– Juan Kruz aditu handia da eta nire albuma euskaratuko zela ja-



‘Tentelontzia’ albuma dakarkigu Ana G. Lartitegui. LUCÍA LAIRLA

kin nuenean, harengan pentsatu nuen, ipuina euskaratzeko ezinbesteko gaitasunak baitzintuen. Izan ere, haurrentzako liburuen itzultzaile eta egile bezala esperientzia handia izateaz gain, poeta eta folklorista ere bada, eta ezaugarri hori gako izan da ipuin honen betegarri, errime eta hizkera arruntari bizia emateko.

– **Zure aburuz, zer-nolako garrantzia du umoreak eta satirak haur-literaturan?**

– Umorearekin eta satirarekin gure ohiko logikan txertatuta dagoena hankaz gora jartzen da eta airean salto egiten du. Errealitatea krisian jartzen du nolabait,

eta horregatik, ez du beti harre-
ra ona izaten haur-literaturan.
Dena den, nire ustez, umoreak
berebiziko garrantzia du, berezi-
ki dituen bertute pedagogikoen-

«Flandeseko Errenazimentuko pintoretako paisaiak eta agertokiak ipuinaren tonu eta izaera herrikoira egokitzen dira»

gatik: presioak askatzen ditu eta gai zailtan sartzea ahalbidetzen du. Bestalde, automatismoak hausten ditu eta arteriosclerosis mentala prebenitzen du.

– **Zer esan nahi dute zuretzat ‘Tentelontzia’ obrak jasotako sariak –VII Premio Muestra del Libro Infantil y Juvenil, Premio Cuatrogatos 2024 eta Premio Los Mejores de Banco del Libro 2024–?**

– Itxialdi sortzailean agertzen den larritasunaren ondoren, oso pozgarria da sari bat jasotzea. Eta gehiago badira, hobe! Argi bat pizten zaizu eta zure barruko ahots batek halaxe esaten dizu: ‘Aurrera, hurrengoaren bila!’.

– **‘Tentelontzia’ lana osatzeko sortutako jatorrizko akuarelak Azkuna Zentroan -Alhóndiga Bilbao- ikusgai daude irailaren 29ra arte. Zer esan diezagukezu erakusketari buruz?**

– Erakusketa ederra osatu dugu! Bertan, akuarela originalen bilduma osoaz gozatzeko aukera izateaz gain, ipuinaren sormen-prozesuaren fase ezberdinetan arakatu ahal izango du bisitariak. Gainera, ostiral arratsaldetan doako bisita gidatua eskaintzen da alde aurretiko izen-ematearekin; beraz, mundu guztia Mediateka Galerian barruratzera animatzen dut, zalantzarik gabe.